

## “LUR BAT HARATAGO”, IRAKURKETA POLITIKO BAT

Añorga (2002.6.22)

### 1. AITZIN SOLASA

Joan Mari Irigoien idazle altzarrak lan mardul (652 orrialde Elkarlaneanen eskutik) eta sakona utzi zigun 2000. urtean, Durangoko azokan salduena halere. Aipatu bestalde aurten nobela historiko honen gaztelerazko itzulpena argitaratuko duela Tarttalok. Eleberri, poesia nahiz gazte literaturan aritua ordurarte, hauxe dugu politikoena bere edukinean. Estilo zaindua, Axular handiaren euskara dotorean josia, esaldi erlatibo ugariz eta homofoniaz baliatuz ("libertatearen ezitia, libertate faltaren ezten"), erudizio filosofikoz hornitua (Plinio Zaharra, Seneka, Montaigne, Quevedo edo Rabelais bezalakoan aipamenak erruz aurki daitezke) eta hizkuntzaren inguruko gogoeta sinbolikoz betea ("harria den hitza").

Hiru ataletan banatzen den liburuko pertsonai nagusi eta kontalaria Joanes Etxegoien dugu, jaun André Salamancako maisuari gutun bidez berri ematen diolarik. Berarengan osaba Joanikot zientziazale ernazentista, agramondar ("libertatea duk ene bizitzako ametsa") eta Inkisizioak "bisitatutako" luthertar amorratuak ("austriar erregeen politikak Kontraerreformaren spiritua estatuarrazoin bihurtu baitzuen") eragin handia izan zuen. Gertakari gehienak XVII. mendeko Urbaiain asmatuan kokatzen dira, "Nafarroa ofiziala baino Nafarroagoa izan daitekeen isilpeko bertze Nafarroa horretan", zeren eta "libertatea... beti baita lur bat haratago".

### 2. INPERIOAREN HIZKUNTZA

Gauza jakina da "arma-bidez gerla irabazten duenak erabakitzen duela hitzaren norabidea" eta horrela "Historia gezurraren gainean eraikia dago", "egiaren beldur garelako eta libertatearen beldur...". Etxegoienarren arteko beaumontarzaileenak, aitona Nikolas eta Mattin anaia, sinetsiak daude "Nafarroa tipi zela eta Gaztelak eta Espainiak handi egin zutela". Herriko apaiza aita Bartolomek berriz zera dio: "Fernando Katolikoa izan zen Jainkoak nafarro i gorri zigun salbatzailea, Nafarroa protestantismoaren atzaparretatik libratzeko eta zerurako bidean jartzeko". Laburbilduz, "errege katolikoaren intransigentziaren eta pertsekuzioaren uholdea".

Kontuan izanik denboraren ehundegietan "goikoak eta behekoak bat izan ginela sasoin batean", Luis XIV. erregearen tropak Zuberoara iritsi ziren "justiziaren izenean injustiziaren ezartzerat" eta Mathalas bezelako herriaren eskubideen defendatzaile baten gorputza lau partetan zatitu eta haren burua Mauleko murrailetakoko itsu-leihotik eseki. Ongi baino hobeki frogatu zuen Ohienartek, Zuberoako parlamentuko ordezkariak, "Nafarroan gertatua usurpazione bat izan zela". Eta, hala eta halatan, Pirinioetako Bakea.

Alabaina, "bakearen azpian beti ezkutatzen da gerla": Noain eta Amaiur, Massada eta Numantzia, Urbiaingo jauregia ... "libertatea ezetz erraiteko eskubidea baita".

### 3. SINBOLISMOAK

Erlijoan oinarrituz, Ararat biblikoak libertatearen mendia sinbolizatzen du, non Noek lehorreratu izan baitzuen bere untzia uholdeak irents ez zezan. Villa grandeko dukeak Joanesen aita Martini, Urbiaingo markes titulua ematen dio ehun kainoiren truke, edo hobe ehunda bat, azken hau jauregiaren aitzinean paratzeko Amaiurri beha "bertze nafar horien aurka erabiltzeko, baldin nehoiz ere Gaztelaren aurka eta Espainiaren aurka altxatzen badira..."

Semeak aldiz "Madrili beha paratu behar genuena,- hogeit hamar haratago, eta mendekurako deia egiten zidana...". Osaba zientzilariari kasu eginez, horrela kokatzen dute kainoia, tiro egiteko manua emanaz "austriarren arrano inperialari, Nafarroaren menekotasunaren zeinua eta seinalea, eta libertatearen kontrakoa, beraz". Bibaka aritzen dira bildutakoak baina kontraesanean, aitzak "Nafarroa, Espainiako errege Felipe IV.a, Eliza Katolikoa eta aita saindu Alexandro"-ri; osaba-ilobak berriz "Ararat" oihukatuz. Aurreraxeago, osaba Joanikot honela arituko zaigu: "zeren libertatearen liburu hitzez duk, baina batik bat egitez, eta zeren hala egiten baita libertatea, kolpe bati bertze kolpe batez ihardetsiz."

### 4. ITSASOAZ BESTALDEKOAK

Bere maitale den Maddalenekin batera beren buruez beste egin aurretik, hauxe diosku Joanikotek: "desterru handiagoa dik etxean dagoenak, baina burua beheiti, ezen ez etxetik kanpoan dagoenak, baina burua goiti". Beste horrenbeste bere "seme spirituala" den Joanesek amari jesuiten fariseismoa gaitzetsi ondoren "zeren neure etxea izan baitut atzerri, neure etxea otserri". Kontuan izan, San Inazio beaumontarren alde guduztatu zela, gerora Txina eta Goan ibiliko zen Frantzisko Xabierkoa agramondarra Parisen konbertituz esaera famatu hartaz: "Zertarako zeureganatu mundu osoa, baldin arima galtzen baduzu ?"

Piarres Oihartzabalekin bat eginez itsasoratzen da Joanes, Tomas Mororen antzera Utopia bila, "itsasoan ediren bainuen nik neure libertaterako bidea", "zeren libertatea maite baitugu bertze deusen gainetik", "libertatea lur bat duk, baina egunorok konkistatu eta irabazi beharra dagoena, zeren irabazi orduko gal daitekek." Han indiarren holokaustoaren berri ezagutzen du eta Hatuey bezelako Kubako cacique edo buruzagiarena, zeinek nahiago baitzuen infernura joatea zerura baino girstino kolonizatzaile krudelekin ez egoteagatik.

"Mundu Berrirat etorri eta Mundu Zaharra ikusi... gizonak gizonen oinpean!", Antonio Ibarbia bidaikidearen hitzetan Orinokotik barrena.

Han ere, hiru urtez guztia partitzen zuten indiarren paradisuari biziz, Nafarroaz oroitzen da, indiar ori sumisuak eta gorriak bereiztean. Beste batean, Fernando Pacheco zaldun

errabiatuak botatakoak entzunda -"bizkaitarrak, astoen lengoian mintzo diren barbaroak"-, honela deritzo: "gu nafar bentzutuok indiarren parekoak gara, Espainiako indiarrek".

#### 5. NAFARROAREN BIRKONKISTA: MELIUS IN OPPIDULO ESSE PRIMUM, QUAM IN CIVITATE SECUNDUM.

Berdinak ez direnez bizi dugun denbora eta gu bizi gaituena, Joanesek akziorako deia entzuten du, lehenagotik entzuna bazuen ere. Horrela, Pedro Huizi, Italiartutako artistak, zera esatean: "Hihaurk erabakitzen ez baduk gogoz heure bizitza, bizitzak erabakiko hau hi, gogoz bertzerat" edo Joanikote osabak berriz: "libertatearen aldeko borrokan, nehor ere ez zagok soberan: hi ere ez..."

Eta "naufrago bezala zalantzen itsaso koleratuan arrazoinaren untzia galduta", mundua ezpataz ala buruz irabazten den deliberamenduan; ama damutuak Etxegoiendarren leinuko ardi beltzen gutunak erakusten dizkio, hala nola Estebanek 1521.ean idatzia: "Errege Faltsuaren kontra, Gaztelako tropei buru eginik, zeren nork bere lurra defendatzea baita gizonaren lehen obligazioa eta eginbidea, eta entseiatzea nork bere lur galduaren berreskuratzerat."

Historia ahanzturaren ganbaratik atera eta Espainiaren izenean pizten diren gerla horiei uko egiten dion, lehenik eta behin, bere burua nafartzat duen gazte batek Joanesi adierazten dio: "nik bizia eman baitezaket Nafarroaren alde", Joanesek ondokoa hausnartzen duelarik: "ez ote da piztuko berriro gerla noizbait hemen Nafarroan Espainiaren kontra... eta Frantziako erresuman ere, Zuberoako populua ere deskontent dagoke?".

Eta akabatzerat bere buruari galdetzen dio: "libertatea nehoiz konkistatzen ez den lurra denez gero", "esperantza bertze zalantza bat" bada ere, "eta spiral bat balitz gure bizitza, deusezetik osorat, zeren post tenebras spero lucem?". Beharbada erantzuna liburuan zehar galdutako esaldi batek agertzen digu: "libertatea neguan dago, baina negu bakoitzak dik bere udaberria".